



# MENDI IRTEEREN INFORMAZIOA INFORMACIÓN DE EXCURSIONES

## TXANTREA MENDI TALDEA



Laguntzen du  
Colabora

txantreamenditaldea@gmail.com

<http://www.txantreamenditaldea.com>

<https://www.facebook.com/profile.php?id=100054594633792>

Orria z./ Hoja n. 510 (1)

2025/10/05

Igoera/Ascensión

## Iratzi-Errekaidorra xenda-Monte Patxula

Por la Selva de Irati y el arroyo Urbeltza hasta Zuberoa para subir a Patxula (1427m)

Iratzi Oihanean zehar, Urbeltza errekan gora Zuberoaraino, Patxula mendira

Irteera ordua-Hora de salida: **Goizeko 7:00ak - 7:00 de la mañana**

Irteera lekua-Lugar de salida: [https://maps.app.goo.gl/eyMxtZgaqGqWejYf7?g\\_st=ic](https://maps.app.goo.gl/eyMxtZgaqGqWejYf7?g_st=ic) San Cristóbal kalea (Plaza Txantrea nº 11.)  
(Parada bus junto a centro salud)

Zaitasuna - Dificultad: Zeharkaldi/igoera ertaina-Travesía/subida moderada

Iraupena-Duración aproximada: 6-7 ordu


Igoera-jaitsiera-Desnivel: 730 m ↑ 730 m ↓

Luzera-Distancia: 16 Km

Beharrezko materiala-Material obligatorio: Mendirako arropa, oinetakoak. Ropa y calzado de montaña.




Aurreko astean atzeratu behar izan genuen ibilaldia berreskuratuko dugu, oraingoan udazkenez. Irati Oihanean murgilduko gara, Urbeltza errekan gora, eta behera ere. Errekaidorra izeneko xendant zehar Zuberoaraino ailegatuko gara Patxula mendia (1427m) igotzeko. Hauxe Orhi menditik datorren gandorreko azken tontorretakoa dugu. Leku liluragarriak, basoko lanen interpretazio-bidea, paisaia irekiagoak, ...



## Iratzi: Oihan handienean galdu, mendian ibili

Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Nafarroako lurretan hedatzen da Irati, Orhi menditik Orbaitzetako lurretaraino. Europan dauden pagadi-izeidi handienetan bigarrena da, Alemaniako Oihan Beltzaren ondotik. Zerutik begiratuta, 17.000 hectareako lur eremu zabala hartzten duen orban berde handia da oihana. Pagoak eta izeiak dira nagusi, baina, haietan batera, beste hainbat espezie daude: hurritzak, zumarrak, astigarrik, sahatsak, ezpelak, ipuruak, iratzeak, goroldioak... Hala, koloretako paisaia ikusgarriak sortzen dira: kolore biziz hasten da udaberria, udan berdetasuna, udazkenean, baina, laranjak, horriak, marroiak, ... Horien guztien kolore nahasketak koadro handi bat sortzen du. Nolanahi ere, ederrak dira beti Iratiko basoak.



Iratzi Auztegiako hagina  
Tejo de Auztegia en Irati

Recuperaremos este recorrido que tuvimos que aplazar, en esta ocasión ya metidos en otoño. Nos adentraremos en la Selva de Irati, remontando y luego descendiendo, el arroyo Urbeltza, a través de la senda denominada Errekaidorra.

Llegaremos hasta Zuberoa para ascender el monte Patxula (1427m). Una de las últimas cimas de la cresta que viene desde el Orhi. Lugares fascinantes, camino de interpretación de trabajos forestales, paisajes más abiertos, ...

## Iratzi: Perderse en la selva más grande, caminando por el monte

Irati se extiende por tierras de Baja Navarra, Zuberoa y Navarra, desde el monte Orhi hasta las tierras de Orbaitzeta. Es el segundo hayedo-abetal más grande de Europa, después de la Selva Negra de Alemania. Desde el cielo, la selva es una gran mancha verde que abarca una extensa extensión de 17.000 hectáreas de terreno. Predominan las hayas y los abetos, pero junto a ellos se encuentran otras especies como avellanos, olmos, arces, sauces, boj, ... Así, se crean espectaculares paisajes de colores. También hay ríos en Irati, lo que también convierte a Irati en un lugar especial a visitar. En otoño, hay más humedad en la zona, llueve, y empiezan a aparecer también nieblas. Los ríos tienen mayor caudal de agua, y en las cumbres comienzan las primeras nieves.

Atributos ideales para hacer fotos preciosas



## Gure ibilbidea Iratin barrena


\* **Iratiko Etxeetan** emanen diogu hasiera gure ibilbideari, Elurretako Ama Birjinaren ermitaren ondoan. **Iratiko Oihanaren** bihotzean kokatua, mendizale gune klasikoa eta bere xarmagatik turistikoki ezaguna. Bertan aparkaleku zabala, taberna, jatetxea, informazio etxola... eta iturri bat ditugu, Nafarroako Pirinioetan dagoen ingurune eder batez inguratuta egoteaz gain. **Urbeltza** (Zuberoatik dator) eta **Urtxuria** (Pikatua ingurutik jaisten da) errekek bat egiten duten tokian dago, bertan biek **Irati ibaiari** jaiotza ematen diote.

\* **SL-NA 62A**ko bide zabala hartuko dugu, **Urbeltza** ibaiaren bidexka, ezkerretik ibaira jaisten den bidezidorra aurkitu arte. Pagadian sartuko gara ibaiertzetik, bidexkak bide zabalera aterako gaituen arte. Iparralderantz jarraituko dugu, **Errekaidorrako** bidetik. Bideak Ekialderago egiten duenean, ezkerreko bidea hartuko dugu, **Zuberoako** mugan dagoen pasabide batera jaisteko. Orain, **Patxula** beraren domeinuetan jarraituko dugu, **Urbeltzatik** gertu. Kilometro bat pasatxo eginda, esquinera eginen dugu gaurko tontorrera igotzeko, **Patxula mendira (1427m)**. **Orhitik** datorren gailur dotore guztia baino mendebalderago dago, **Bizkartze (1656m)** du hurbilena. Itzulera **Urbeltzaren** eskuineko ertzetik eginen dugu, ibaia interpretatzeko bidezidorrean zehar.

### Nuestra ruta a través de Irati

\* Daremos comienzo a nuestra ruta en las denominadas **Casas de Irati**, junto a la ermita de la Virgen de las Nieves. Ubicada en pleno corazón de la **Selva de Irati**, clásico sitio montañero y reconocido turísticamente por su encanto. Allí contamos con amplio aparcamiento, bar, restaurante, caseta de información, ... y una fuente, además de estar rodeado de un hermoso entorno en pleno Pirineo navarro. Lugar situado en la confluencia de los arroyos **Urbeltza**, que viene desde Zuberoa, y **Urtxuria**, que desciende de la zona de Pikatua, dando nacimiento aquí al **río Irati**.

\* Tomaremos el ancho camino del **SL-NA 62A**, senda del río **Urbeltza**, hasta encontrar la senda que por la izquierda nos baja al río. Nos internamos en el hayedo por la orilla hasta que la senda nos vuelve a sacar al ancho camino. Continuamos hacia el Norte por **Errekaidorrako bidea** y cuando el camino gira más al Este tomamos la senda a la izquierda que nos bajará a una pasarela en la muga con **Zuberoa**. Seguiremos ahora ya en los dominios del mismo **Patxula** cerca del **Urbeltza**. Tras algo más de un kilómetro giramos a la derecha para iniciar la subida a nuestra cima de hoy, el monte **Patxula (1427m)**. Cima más al Oeste de toda la majestuosa cresta que viene desde el **Orhi**, siendo el más cercano **Bizkartze (1656m)**. La vuelta la haremos por la orilla derecha del **Urbeltza** a través del sendero interpretativo del río.



**Hemen duzue balizko ibilbidea. Iratiko etxeetan hasita, Urbeltza errekan gora, Zuberoaraino Patxula mendia egiteko. Itzulia errekaren eskuinaldetik eginez.**

**Aquí tenéis el posible recorrido. Empezando por las casas de Irati, subiendo por el río Urbeltza, hasta Zuberoa para hacer el monte Patxula. Haciendo la vuelta por la margen derecha del arroyo.**

